2026ko azaroaren 7a

Albiste eta informazio interesgarriak

EHPM-K GASTEIZEN ANTOLATUTAKO TOPAKETA ARRAKASTATSUA ETA ANIMOZ BETEA IZAN DA

Joan den asteartean Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM) Gasteizen antolatutako Topaketan parte hartzeko aldez aurretik sumatzen zen pentsiodunen gogoak berretsi zuen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako kideen parte-hartze hain handia, eta borrokan jarraitzeko erakutsi duten borondatea. Hain zuzen ere, kopuruak ala adierazten du: 810 pentsiodunek eta sindikatuetako eta hainbat gizarte eragiletako dozena eta erdi ordezkarik areto nagusia bete zuten, eta ondoko beste areto bat prestatu behar izan zen, areto nagusian sartu ez zirenek ekitaldia pantaila baten bidez jarrai zezaten.

Ekitaldia, bertaratu ziren guztiei, bai pentsiodunei, zein sindikatu eta gizarte eragileetako gonbidatuei ongietorria emanez hasi zen. Hasiera agurrean, aurreskua dantzatu zen, bertsoak eta poesiaren laguntzarekin, eta minutu bateko isilunea egin zuten azken ia 9 urtetan borrokan aritu eta jada gure artean ez daudenek gogoratzeko. Ekitaldian zehar iraun zuen emozioz beteriko unea izan zen.



Ondoren, zortzi urte baino gehiagoko borroka eta mobilizazioei buruzko bideo bat ikusi ahal izan zen, non bertaratutako asko eta asko ekitaldi ezberdinetako irudietan agertzen ziren.


Ekitaldiak, udaberrian zehar egindako inkestaren txosten eta balantzearen azalpenarekin jarraitu zuen, egindako ekarpenak eta parte-hartzaileen kopurua nabarmenduz, eta ondorio hauek azpimarratzen dira: parte-hartzaile gehienek positibotzat jotzen dute EHPMk egindako lana, eta orain arte egindako borrokarekin jarraitu beharra dagoela adierazten dute. Ondoren, zaintza sistema egoki bati buruz egin den lanaren azalpena eman zen, bereziki adinekoentzat eta pentsiodunentzat duen garrantzia azpimarratuz, eta “talka” plan bat aurkeztu zen, kalitatezko zaintzaren eta sistema publiko baterantz hurreratzeko premiazko eskakizunak zehaztuz.

Azalpen horien ondoren, pentsioen egungo egoerari buruzko txostena azaltzeaz gain, pentsiodunok aurrerantzean ditugun erronkei buruzko informazioa ere eman zen. Gobernu zentralarekin eta EAEko eta Nafarroako gobernuekin zintzilik ditugun aldarrikapenak nabarmendu ziren. Nafarroako Gobernuak EH Bildurekin egindako azken akordioaren berri ematen da, zeinek 2027rako gutxieneko pentsioak 1.190 euroraino osatzea ebazten duen.

Era berean, hilaren 11ko Greba Orokorra babesteak duen garrantzia nabarmendu zen, baita azaroaren 29ko hauteskunde orokorrak izango duten eragin politikoa kontuan hartzeko deia egiten da. Hauteskunde hauetatik atera daitekeen PP-Vox alderdien balizko gobernu batek ekar litzakeen arriskuez ohartaraziz, beraz, gure aldarrikapenak defendatzen dituztenei botoa emateak duen garrantzia azpimarratzen da. Bestalde, hilaren 21ean Bilbon eta 23an Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako hiriburu eta herrietan pentsioen sistema publikoaren alde eta bizimoduaren garestitzea eragiten dutenek salatzeko prestatuta dauden ekimenen berri eman zen. Azaroaren 19an Zumaian egingo den EHPMko Emakumeen Asanbladaren berri ere eman zen.

Ekitaldia, topaketaren leloa nabarmenduz amaitu zen: “Hasi ginen, haziak gara”, herri bakoitzeko ordezkari bati haritz kimu bana eman zitzaion, eta Txoria Txori abestu zuten denen artean. Partaide bakoitzari poltsa bat ere eman zitzaion 8 haritz ezkurrekin, zortzi urteko borroka sinbolizatuz. Eta, amaitzeko, elkarretaratze bat egin zen Europa Jauregiaren atarian, eta historiarako geratuko den argazki eta bideo-grabaketa egin zen. Grabaketa honek osatuko du batzarraren hasieran banatu zen 8 urteko EHPMren borrokaren historia biltzen duen aldizkari koloretsua.

Ekitaldiaren amaieran, parte hartzaile guztien arteko giro baikorra nabaritzen zen, batzarrak izan zuen edukiagatik, azalpenengatik, eta Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak erakutsi zuen indar eta zabalkundearengatik, argi geratuz borrokan jarraitzeko animoa eta ilusioa ez direla falta.



Tasioren txokoa

NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA EH BILDUREN ARTEKO AKORDIOA, GUTXIENEKO PENTSIOAK 1.190 EURORA ARTE OSATZEKO

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurrerapauso garrantzitsutzat jo du Foru Gobernuak eta EH Bilduk Nafarroako gutxieneko pentsioaren osagarriari buruz lortutako akordioa. Hitzarmen horren arabera, 2027tik aurrera, hilean 1.190 euroraino osatuko da gutxieneko pentsioa, eta 14 ordainsari izango ditu (16.660 euro urtean). Aurten osagarriarekin gutxieneko pentsioa 1.100 eurokoa da, beraz, datorren urterako igoera %8,18koa izango da. Horri esker, momentu honetan ezarrita dagoen 1.221€ko gutxieneko soldata eta gutxieneko pentsioa parekatzeko helburura hurbiltzen joan gintezke apurka-apurka.

Positiboki baloratzen dugu igoera hori, LGSren pareko gutxieneko pentsio bat finkatzea pentsiodunen mugimenduak lehenetsi duen eta lehenesten duen aldarrikapena delako. Hala ere, osagarrirako eskubidea PFEZri buruzko Foru Legean jasota badago ere, ez dago zenbatekoa zehazten duen adierazlerik, eta urtez urte aurrekontuekin negoziatu beharko da. Gainera, osagarria eskuratzeko eskatzen diren baldintzek, bereziki bizikidetza-unitatearen diru-sarreren balorazioak, eta ez indibidualak, neurri handi batean mugatu egiten dute osagarri hori jaso dezaketen pertsonen kopurua. Gizarte Segurantzaren baldintzak aplikatuko balira gutxienekoen osagarrirako edo gure HELkoak, eragingo lieken pentsiodunen



kopurua 35.000 eta 40.000 pertsona artekoa izango litzateke, eta ez akordio honen arabera izango diren 14.000 pertsona.

Genero arrakalarekin amaitzea ere gure aldarrikapenaren funtsezko elementua da, eta berehala lortuko litzateke gure HELren proposamenarekin, beraiek ezarri dituzten baldintzen arabera onuradunen %70 emakumeak direlako. Norbanako osagarri batek aukera emango luke emakumeek ezkontidearen diru-sarrerekiko mendekotasunik ez izatea.

Onartzen dugu akordioak 14.000 pentsiodunen egoera hobetzen duela, baina akordioaren sinatzaileak (Nafarroako Gobernua eta EH Bildu) eta Nafarroako gainerako alderdiak animatzen ditugu:

. Legez bermatzea LGSrainoko osagarria, urtero errebalorizatua, hala nola, Nafarroan gutxieneko pentsioen osagarriaren zenbatekoa finkatzeko indizea.
. Nafarroan gutxieneko pentsioa jasotzen ari diren 20.000 pentsiodun baino gehiagori eragiten dien bizikidetza-unitatearen diru-sarreren araberako osagarria eskuratzeko baldintzak ezabatzea.
. Genero-arrakala desagerraraztea, osagarrirako eskubide indibiduala bermatuz, gure Herri Ekimen Legegileko proposamenean araututa dagoen bezala.
. Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) eta Gutxieneko Pentsio propioa ezartzea, errealitate sozioekonomikoaren, Europako Gutun Sozialaren nahikotasun-irizpideen eta aberastasunaren banaketa ekitatiboaren arabera.

Nafarroan lortutakoarekin aurrera egiteko gure borroka bermerik onena dela erakusten duen beste adibide bat da, eta hori egiteko borondate politikoa badago, gutxieneko pentsioa LGSrekin berdintzea posible dela erakusten du. Ulertezina da Nafarroan gobernatzen duten alderdi berberak (Alderdi Sozialista eta EAJ, Geroa Bairen bidez) Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuan egotea, eta erkidego honetan zentzu horretan aurkezten diren akordio proposamenei uko egitea, are gutxiago 145.142 sinadurak bermatutako HEL bat aurkeztu zenean, gutxieneko pentsioak LGSrekin parekatzeko osagarria eskatuz.

IBERDROLA, BBVA, KUTXABANK ETA REPSOLEK LEHENDIK ZEUZKATEN ESKANDALUZKO IRABAZIAK BIDERKATU DITUZTE

Iberdrolaren arrastoari jarraituz, zeinek duela bi aste aurtengo lehen bederatzi hilabeteetan bere mozkin garbiak publiko egin zituen (5.816,1 milioi euro, %10eko hazkundearekin), joan den astean hala egin dute: BBVAk, 9.066 milioi euroko irabaziak, %13,6ko hazkundearekin; Kutxabankek, 639 milioi euroko irabaziak, %38,4ko igoerarekin; eta Repsolek, 5.006 milioi euroko irabaziak, iazko mozkinak lau aldiz biderkatu ditu. Eta iragarri duten bezala, urte bukaeran dezente altuagoak izango dira, kontuan hartuta hiruhileko honetan ere irabaziak pilatzen jarraituko dutela.



Iberdrolak eta Repsolek irabaziak lortu dituzte elektrizitatearen eta petrolioaren prezio altuak aprobetxatuz. Eta BBVAk eta Kutxabank-ek, hein handi batean, komisioetatik eta banku-interesetatik. Baina energia eta banku enpresa hauen eskandaluzko irabaziak beraien kudeatzaile eta akziodunen esku geratzen dira soilik, eta ezer ez tarifa elektrikoak edo gasolinen kostua murrizteko, ezta bankuen komisioak murrizteko edo klase popularren interesak hobetzeko ere.

Inoiz baino arrazoi gehiagorekin jarri behar zaizkie mugak oligopolio energetikoek ezartzen dituzten prezioei eta bankuek kobratzen dituzten komisio eta interes handiei. Era berean, hasteko lehenbailehen zergapetu behar dira bere onura eskandalagarriak,

dauden behar sozial larriei erantzuteko, eta hau dena behin betirako bideratuko luken sakoneko erreforma fiskalari heldu behar zaio.

OSAKIDETZAKO GREBA: 17 URTEKO BLOKEOAREN AURKA ETA PLANTILLA OSOAREN HOBEKUNTZENGATIK

Urriaren 30ean, ostirala, Osakidetzako langileak grebara joan ziren kategoria guztietarako lan hobekuntzak, benetako negoziazioa eta pribatizaziorik gabeko osasun publikoa eskatzeko. SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGTren deialdiarekin bat egin zuen ESK-k ere.

Gutxieneko zerbitzuak direla eta milaka profesionali eragotzi egin bazitzaien ere grebarako duten eskubidea, sindikatuek erantzun zabala eta irmoa izan zela esan zuten, bereziki Lehen Arretan, administrari laguntzaileen eta erizaintzako parte-hartze handiarekin. Bilbo, Donostia eta Gasteizko manifestazioak jende asko bildu zuten eta oso erreibindikatiboak izan ziren.



Eusko Jaurlaritzak eta Osasun Sailak 17 urte daramatzate Hitzarmen Arautzailea berritu gabe. Hala ere, sindikatuek salatu dute Osakidetzak ez diela irtenbiderik ematen dituzten arazo larriei. Lanaldia murrizketa, ordainsariak, baimenak eta kontziliazioa hobetzea, plantilla egonkorrak eta nahikoak bermatzea eta euskalduntzea eskatzen dute. Nabarmendu zuten Medikuen Sindikatuarekin egindako akordioak ezinegona areagotu egin duela, eta negoziatzeko borondate bera eskatzen dutela kategoria guztietarako.

OPA herri plataformak parte hartu zuen manifestazioetan. Borroka horrek herritarren osasun sisteman eragin zuzena duela adierazi zuten, eta osasun publikoaren eta kalitatezkoaren aldeko aldarrikapenak azpimarratu zituzten. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko talde esanguratsu batek ere bat egin zuen. Azken adierazpenetan, sindikatuek argi utzi zuten abenduko grebei eutsiko dietela: hilaren 9an Araban, 10ean Bizkaian, 11n Gipuzkoan eta 14an Euskal Autonomia Erkidego osoan, baldin eta benetako aurrerapenik eta proposamen zehatzik ez badago.

Zaintzen gaituztenak defendatzea guztiok kalitatezko arreta jasotzeko dugun eskubidea defendatzea da. Beharrezkoa da kaleetan adierazten den elkartasuna mantentzea eta zabaltzea. Izan ere, gure borrokak batzen ditugunean, indartsuagoak garelako.

AZAROAREN 11N: DENOK GREBARA

Hilaren 11ko greba orokorra Espainiako Estatuko herri eta erkidego guztientzat deitu dute.
Hego Euskal Herrian egingo den greba orokorrak sindikatu guztien babesa du, eta etxebizitza-sindikatuek eta kolektibo sozial ugarik ere deitzen dute, horien artean Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM), eta, beraz, lanuzte oso zabala egongo dela uste da, eta manifestazio jendetsuak espero dira kaleetan.

Sindikatu guztiek helburu berdina dute, pertsona guztientzako etxebizitza duina defendatzea eta soldatak hobetzea. Eta zehazki, euskal gehiengo sindikala osatzen duten sindikatuek eta etxebizitza-sindikatuek «greba orokorrarekin bat egiteko deia egiten dute, etxebizitza eskubidea bermatzeko eta espekulazioari ezetz esateko. Langile klasearen pobretzearen aurka borrokatzera ere dei egiten dugu, soldaten igoeraren alde eta pertsona guztien

eskubideak bermatuko dituzten kalitatezko zerbitzu publikoen alde».

Era berean, «beharrezkotzat jotzen dute Espainiako Gobernuaren eta euskal erakunde guztien zeregina jomugan jartzea, higiezinen negozioa indartzen duten politikak bultzatzeko erantzukizuna agerian utziz».



EHPMko kideen ustez, greba orokor hori babestea oso interesgarria da, planteatzen diren aldarrikapenek gizartearen gehiengoari eragiten diotelako. Baina, aldi berean, pentsio publiko duinak eskatzea ere greba honen aldarrikapenen parte izan behar duela uste dugu, soldata eta pentsio duinak ezinbestekoak direlako bizitza duina eduki ahal izateko, besteak beste, etxebizitza eskuratu ahal izateko, alokairuan zein jabetzan.

Kide bakoitzak deituta dauden edozein manifestazioetan parte hartzeko eskubidea dauka, inolako zalantzarik gabe. EHPMk euskal gehiengo sindikalak eta etxebizitza sindikatuek deitutakoetan parte hartuko du, goizean Bilbon, Donostian, Gasteizen, Iruñean, Eibarren eta Tuteran, eta, arratsaldean, Hego Euskal Herriko hiriburuetan eta hainbat herritan egingo direnetan. Goizekoetan, segizio propioarekin egingo dugu, etxebizitza eskubidearen eskaria nabarmenduz, pentsio eta soldata duinen eskaerarekin batera. Hauek dira goizeko manifestazioen hitzorduak:


IRUÑEA 12:30ean, Gaztelu plazan
DONOSTIA 12:30ean, Pio XII.
BILBO 12:30ean, Arriagan
TUTERA 12:30ean, Foru Plazan
GASTEIZ 12:30ean, Bilbo plazan
EIBAR 12:00etan Unzaga Plazan

EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUKO EMAKUMEEN VI. BATZARRA

Azaroaren 19an, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko emakumeek VI. Batzarra egingo dute. Oraingoan Zumaian izango da, Aita Mari zineman. Goizeko 10:00etan hasi eta 13:30ean amaituko da.

Zumaian, besteak beste, Malenetxea emakume migratuen elkarteko ordezkari batek hartuko du parte. Leku batzuetan, Bizkaian esaterako, autobus bat antolatzea aurreikusi dute. Beraz, astelehenetik aurrera, hilak 9, antolatuko den autobusean izena ematera animatzen dute.

Datorren astean, hilaren 14an, informazio zabalagoa eta zehatzagoa emango dugu edukiari eta antolaketari buruz.



EXITOSO Y LLENO DE ÁNIMO EL ENCUENTRO ORGANIZADO POR EL MPEH EN GASTEIZ

El ánimo y el interés que se venía percibiendo desde días atrás entre los compañeros/as de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa para participar en el Encuentro organizado por el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria (MPEH) en Gasteiz, el pasado martes, hacía prever que iba a constituir un éxito de participación y de voluntad para continuar en la lucha. Y, efectivamente, así fue: 810 pensionistas y docena y media de representantes de sindicatos y de diversos colectivos sociales abarrotaron el salón principal y hubo que habilitar otra sala contigua para que se pudiera seguir el acto en una pantalla preparada al efecto.

El acto comenzó con un saludo de bienvenida a todos y todas las asistentes, y a los invitados de los sindicatos y colectivos sociales. Inicio que estuvo acompañado de aurresku, bertso y poesía, y de un recuerdo con un minuto de silencio por quienes han compartido años de lucha en los últimos 8 y ya no están entre nosotros/as. Fue un momento de especial emoción que se extendió a todo lo largo del acto.



A continuación, se visualizó un video con los más de ocho años de lucha y movilizaciones que llevamos a cabo, en los que muchos y muchas de los/las asistentes se vieron presentes o reflejados/as.

El acto continuó luego con un informe y balance del amplio número de encuestas llevadas a cabo a lo largo de esta primavera, destacándose las aportaciones habidas y con una conclusión: el grueso de los/las participantes consideraban positivo el trabajo realizado por el MPEH y la necesidad de continuar en la pelea. Y a continuación hubo una exposición sobre la importancia de los cuidados, destacándose su necesidad en especial para las personas mayores y pensionistas, y presentándose un "plan de "choque" con demandas urgentes a cumplimentar y avanzar hacia un sistema público de cuidados y de calidad,


A estas exposiciones siguió el informe sobre la situación actual de las pensiones, y de otras demandas del movimiento pensionista, así como de los retos a que nos enfrentamos. Se resaltaron las reivindicaciones que tenemos pendientes con el Gobierno central, así como con los gobiernos de la CAV y de Nafarroa, informándose del último acuerdo del Gobierno de Nafarroa con EH Bildu para complementar las pensiones mínimas hasta 1.190 euros para 2027.

Se destacó, asimismo, la importancia del apoyo a la Huelga General del día 11, así como de las elecciones generales del 29-N, donde se advirtió de los riesgos que puede comportar un posible gobierno del PP-Vox y del interés de votar a quienes defiendan nuestras reivindicaciones. Por otro lado, se informó de las iniciativas que tenemos previstas para el día 21 en Bilbao y para el día 23 en las capitales y pueblos de Araba, Gipuzkoa y Nafarroa en defensa del sistema público de pensiones y para denunciar la carestía de la vida y quienes la provocan. También se

informó de la Asamblea de Mujeres del MPEH que se celebrará el 19 de noviembre en Zumaia.

En acto finalizó destacando el lema del Encuentro "Hasi ginen, haziak gara" (Nuestra lucha es semilla), la entrega de retoños de roble a un compañero/a representante de cada pueblo y el canto del Txoria Txori. Se repartió también una bolsita a cada asistente con ocho bellotas de roble simbolizando los ocho años de lucha. Y se culminó con una concentración a la salida del Palacio de Europa, que fue fotografiada y grabada, como un buen recuerdo para todos y todas las asistentes. Recuerdo que se verá complementado con una revista muy colorida que se distribuyó a la entrada de acto, donde se recoge la historia de los más de 8 años de lucha del MPEH, incluyendo lo vivido en este encuentro.

Al término del acto, el ambiente entre todos y todas las participantes era que había sido positivo, tanto por su contenido como por su exposición, al igual que una expresión de fuerza e implantación del Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria y motivo de ánimo e ilusión para continuar en la pelea.



ACUERDO DEL GOBIERNO DE NAVARRA CON EH BILDU PARA COMPLEMENTAR LAS PENSIONES MÍNIMAS HASTA 1.190 EUROS

El Movimiento Pensionista de Euskal Herria valora como un avance importante el acuerdo entre el Gobierno Foral y EH Bildu sobre el complemento a la pensión mínima en Navarra hasta 1.190 euros al mes en 14 pagas (16.660 euros anuales) para 2027. Este año con el complemento la pensión mínima es de 1.100 euros, con lo que la subida para el año que viene es del 8,18 %. Esto permite ir acercándose a nuestro objetivo de pensión mínima igual al salario mínimo, en estos momentos situado en 1.221€.

Valoramos positivamente esta subida porque la fijación de una pensión mínima que se iguale al SMI ha sido y es una de las reivindicaciones más urgentes del movimiento pensionista. No obstante, aunque el derecho al complemento está recogido en la Ley Foral del IRPF no existe un indicador que determine la cuantía y año tras año se tiene que negociar con los presupuestos. Además, los requisitos exigidos para acceder al complemento, especialmente la valoración de ingresos de la unidad convivencial y no el individual, limitan en gran medida el número de personas que lo pueden



percibir. Si se aplicaran los requisitos de la Seguridad Social para el complemento a mínimos o los de nuestra ILP, el número de personas pensionistas beneficiarias serían entre 35.000 y 40.000 personas y no las 14.000 que se van a beneficiar con el acuerdo.

Acabar con la brecha de género, es también un elemento esencial de nuestra reivindicación que se conseguiría de inmediato con nuestra propuesta de ILP ya que el 70% de las personas beneficiadas aplicando sus requisitos son mujeres. Un complemento individual posibilita la no dependencia de las mujeres de los ingresos del cónyuge.

Reconocemos que el acuerdo mejora la situación de 14.000 personas pensionistas, y animamos a los firmantes del acuerdo (Gobierno de Navarra y EH Bildu) y al resto de partidos navarros a:

. Garantizar por ley el complemento hasta al SMI, revalorizado anualmente, como el índice para fijar la cuantía del complemento de las pensiones mínimas en Navarra.
. Eliminar los requisitos especialmente el del acceso al complemento en función de los ingresos de la unidad convivencial que dejan fuera a más de 20.000 personas pensionistas en Navarra que perciben la pensión mínima.
. Erradicar la brecha de género garantizando el derecho individual al complemento tal como viene regulado en nuestra propuesta de Iniciativa Legislativa Popular.
. Establecer un Salario Mínimo Interprofesional (SMI) y una Pensión Mínima propia en función de la realidad socioeconómica, los criterios de suficiencia de la Carta Social Europea y el reparto equitativo de la riqueza.

Lo conseguido en Navarra es un ejemplo más de que nuestra lucha es la mejor garantía para avanzar y muestra que si hay voluntad política de hacerlo, igualar la pensión mínima al SMI es posible. Es incomprensible que los mismos partidos que gobiernan en Navarra (Partido Socialista y PNV a través de Geroa Bai) formen parte también del Gobierno de la Comunidad Autónoma Vasca, y en esta comunidad se nieguen en redondo a cualquier acuerdo en ese sentido, menos aun cuando se presentó una ILP avalada por 145.142 firmas, solicitando que las pensiones mínimas se complementaran equiparándolas al SMI.

IBERDROLA, BBVA, KUTXABANK Y REPSOL MULTIPLICAN SUS ESCANDALOSOS BENEFICIOS

Siguiendo la estela de Iberdrola, que hace dos semanas hacía públicos sus beneficios netos en los nuevos primeros meses de este año (**5.816,1** millones de euros, con un incremento del **10%**), la semana pasada lo han hecho: BBVA, **9.066** millones de euros de beneficios con un crecimiento del **13,6%**; Kutxabank, **639** millones de euros de beneficios con un aumento del 38,4 %; y Repsol, **5.006** millones de euros de ganancias con un crecimiento que multiplica por cuatro las del año pasado. Y tal como han anunciado, a finales de año serán bastante superiores, habida cuenta de que será un trimestre más en el que continuarán acumulando beneficios.

Iberdrola y Repsol obtienen sus beneficios aprovechando los altos precios de la electricidad y el petróleo. Y el BBVA y Kutxabank en buena parte a cuenta del cobro de comisiones e intereses bancarios. Pero las enormes ganancias de estas empresas energéticas y bancarias quedan exclusivamente en las manos de sus gestores y accionistas, y nada para reducir las tarifas eléctricas, o el costo de las gasolinas, ni tampoco para reducir las comisiones de los bancos o mejorar los intereses de las clases populares.



Con más razón que nunca hay que poner límites a los precios que imponen los oligopolios energéticos y a las altas comisiones e intereses que cobran los bancos. Asimismo, de un modo urgente hay que gravar sus enormes beneficios, sin menoscabo de llevar a cabo una reforma fiscal profunda para atender las graves necesidades sociales existentes.

HUELGA DE OSAKIDETZA: CONTRA 17 AÑOS DE BLOQUEO Y POR MEJORAS DE TODA LA PLANTILLA

El viernes 30 de octubre, las trabajadoras y trabajadores de Osakidetza fueron a la huelga para exigir mejoras laborales para todas las categorías, negociación real y una sanidad pública sin privatizaciones. A la convocatoria de SATSE, ELA, LAB, CCOO y UGT se sumó también ESK.

Pese a unos servicios mínimos abusivos que impidieron a miles de profesionales ejercer su derecho a huelga, los sindicatos destacaron una respuesta amplia y contundente, especialmente en Atención Primaria, con una importante participación del personal auxiliar administrativo y de enfermería. Las manifestaciones de Bilbao, Donostia y Gasteiz fueron nutridas y muy reivindicativas.

El Gobierno Vasco y el Departamento de Salud llevan 17 años sin renovar el Acuerdo Regulador. Aun así, los sindicatos denuncian que Osakidetza no ofrece soluciones a los problemas de calado. Reclaman reducir jornada, mejorar retribuciones, permisos y conciliación, garantizar plantillas estables y suficientes, y la euskaldunización. Resaltaron que el acuerdo con el Sindicato Médico ha aumentado el molestar y exigen la misma voluntad negociadora para todas las categorías.

Las plataformas ciudadanas OPAs participaron en las manifestaciones. Señalaron que esta lucha, también afecta a la ciudadanía, subrayando sus reivindicaciones en defensa de una sanidad pública y de calidad. También se sumó un grupo significativo de pensionistas del Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria. En sus declaraciones finales, los sindicatos dejaron claro que mantendrán las huelgas de diciembre: el día 9 en Araba, el 10 en Bizkaia, el 11 en Gipuzkoa y el 14 en toda la Comunidad Autónoma Vasca, si no hay avances reales y propuestas concretas.

Defender a quienes nos cuidan es defender el derecho de todos y todas a una atención de calidad. Es necesario mantener y ampliar la solidaridad expresada en las calles. Porque, cuando unimos nuestras luchas, somos más fuertes.



11 DE NOVIEMBRE: TODOS Y TODAS A LA HUELGA

La huelga general del día 11está convocada para todos los pueblos y comunidades del Estado español. En Hego Euskal Herria cuenta con el apoyo de todos los sindicatos, además de los sindicatos de vivienda y numerosos colectivos sociales, entre ellos el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria (MPEH), con lo que cabe esperar un paro muy amplio y multitudinarias manifestaciones en las calles.

Un denominador común de todos los sindicatos en Hego Euskal Herria es la defensa de una vivienda digna para todas las personas, así como una mejora de los salarios. Y en concreto los sindicatos que componen la mayoría sindical vasca y los sindicatos de vivienda «llaman a sumarse a la huelga general para garantizar el derecho a la vivienda y decir no a la especulación. También llamamos a luchar contra el



empobrecimiento de la clase trabajadora, a favor de la subida de los salarios y en defensa de unos servicios públicos de calidad que garanticen los derechos de todas las personas».

Asimismo, «consideran necesario poner en el punto de mira el papel del Gobierno español y de todas las instituciones vascas, dejando en evidencia su responsabilidad en el impulso de políticas que refuerzan el negocio inmobiliario».

Para el MPEH el apoyo a esta huelga general es de sumo interés, pues las reivindicaciones planteadas afectan a la mayoría de la sociedad. Pero, al mismo tiempo, estimamos que la exigencia de unas pensiones públicas dignas debe formar parte de las reivindicaciones de esta huelga, puesto que, salarios y pensiones dignas son imprescindibles para poder llevar a cabo una vida digna, así como para poder acceder a una vivienda, tanto en alquiler como en propiedad.

Sin menoscabo de que cada persona y pensionista pueda participar en las diversas manifestaciones convocadas, el MPEH tomará parte en las convocadas por la mayoría sindical vasca y los sindicatos de vivienda, tanto por la mañana en Bilbao, Donostia, Gasteiz, Iruña, Eibar y Tutera, como en las que se llevarán a cabo por la tarde en las capitales y en numerosas localidades de Hego Euskal Herria. En las de la mañana, lo haremos con cortejo propio, resaltando la demanda del derecho a la vivienda, junto a la de pensiones y salarios dignos. Las citas de las manifestaciones de la mañana son:

IRUÑEA 12:30 en la Plaza del Castillo
DONOSTIA 12:30 Pio XII
BILBO 12:30 Arriaga
TUTERA 12:30 Foru Plaza
GASTEIZ 12:30 Bilbo Plaza
EIBAR 12:00 Unzaga Plaza

VI ASAMBLEA DE LAS MUJERES DEL MOVIMIENTO DE PENSIONISTAS DE EUSKAL HERRIA

El próximo 19 de noviembre, las Mujeres del Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria celebrarán su VI Asamblea. En esta ocasión será en Zumaia, en el cine Aita Mari. Comenzará a las 10:00 de la mañana y finalizará a las 13:30 horas.

En Zumaia, entre otras personas, contarán con la participación de una representante de Malenetxea, asociación de mujeres migradas. En algunos lugares, como en Bizkaia, han previsto organizar un autobús. Por lo tanto, a partir del lunes, día 9, animan a inscribirse en el autobús que se va a organizar.

La próxima semana, el día 14, daremos una información más amplia y detallada de su contenido y organización.

